

COMPRESS-EUS: I(RA)KASLEEN LABURPENAK LORTZEKO TRESNA

Unai Atutxa, Mikel Iruskietza, Olatz Ansa eta Alejandro Molina
Euskal Herriko Unibertsitatea eta Consejo Nacional de Ciencia y Tecnología
(CONACyT, México)

uatutxa002@ikasle.ehu.es, mikel.iruskietza@ehu.es, olatz.ansa@ehu.es,
amolina@conabio.gob.mx

Laburpena

Euskaldun zaharrak eta berriak barnebiltzen dituen ikerketa bat egin da, hizkuntzaren jarrerak interpretatzerako eran desberdintasunik dagoen ikusteko. Lanean jarrera desberdinak kontuan hartu dituzte, konkretuki, abegikortasuna, haserrea, ironia, eta neutroa. Planteatutako hipotesiei dagokienez, bideoa eta ahotsa dauden galderetan, bai ama hizkuntza gaztelania dutenek eta baita euskara ama hizkuntza dutenek ere, bideoan ageri den jarrera erraztasun handiagoz iragarriko dutela uste dute.

Testuak laburtzea hainbat arlotan da garrantzitsua, besteak beste hezkuntzan eta hizkuntzaren i(ra)kaskuntzan. Izan ere, laburtze gaitasuna hezkuntza prozesuan ikasleek garatu beharreko kompetentzia da. Eskola batean ikasle-taldearen laburtze gaitasuna garatu ahal izateko, ezinbestekoak dira baliabide didaktiko egokiak izatea eta ikasle-multzoaren laburpenak kudeatzeko tresna egokiak izatea. Alde batetik, irakasleak ikasle-taldearen zenbait azaleko datu modu automatikoan jasotzen baditu (laburpenen tamaina egokia den eta ideia nagusia mantendu duten, esaterako), bestelako eta sakonagoak diren trebetasun linguistikoak lantzeko: kohesioa eta koherentzia, adibidez. Lan honetan COMPRESS-EUS sistema aurkezten dugu, erabiltzaile-talde baten estrakziozko eta abstrakziozko laburpenak biltzeko tresna eta erabiltzaileek egindako laburpenaren azaleko ezaugarriak deskribatzeko erabil daitekeena, emaitzak kalkulu-orrian ematen dituelako.

Gako-hitzak: Laburpena, abstrakzioa, estrakzioa, COMPRESS-EUS, hezkuntza

1. Sarrera

Laburpena arlo askotan da garrantzitsua, batik-bat, hezkuntzan. Ikasleak informazio asko izan dezake gaur egun, egokia den informazioa, baina, horrek ez du bermatzen ikasleak informazioa ulertzen eta barneratzen duenik. Arazo horren aurrean laburpen gaitasuna garatu beharreko kompetentzia da, informazioa ulertzeko, interpretatzeko, erabiltzeko, berrantolatze eta egokiro idazteko gai izan dadin ikaslea. Horretaz gain, laburpena jarrera kritikoa eta testuaren ulermena ebaluatzeko tresna baliagarria izan daiteke, berari esker irakasleak jakin ahal izango baitu ea ikasleak curriculumeko eduki ezberdinak ulertu eta barneratu dituen.

Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean, 236/2015eko Dekretuan, Oinarrizko zehar-kompetentziak (orokorrak) eta diziplina barneko/arteko oinarrizko kompetentziak (espezifikoak) ageri dira. Oinarrizko zehar kompetentziei⁸ dagokienez, 5 kompetentzia ditugu, denak garrantzi berekoak, eta horien artean dugu “Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia”. Diziplina barneko/arteko

⁸ Oinarrizko zehar kompetentziak hauek dira: 1) Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia. 2) Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia. 3) Elkarbizitzarako kompetentzia. 4) Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia. 5) Norbera izaten ikasteko kompetentzia.

oinarrizko kompetentziei⁹ erreparatuta 7 kompetentzia daude, horietako bat “Hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako kompetentzia”.¹⁰

Oinarrizko zehar kompetentziei eta diziplina barneko/arteko oinarrizko kompetentzien arabera, argi ikusten da hezkuntzan laburpena lantzeak izan dezakeen garrantzia. Horren erakusgarri dira ondorengo adierak agertzea curriculumean: “testuak ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea”, “testuak sortzea”, “testuak sortu eta ulertzea” eta “testuak interpretatzea”.

Laburpenak hezkuntzan izan dezakeen zeresana ikusita, kontuan izan behar dugu zenbateko neurrian eta nola garatzen den laburtze gaitasuna, baita hori egiteko baliabideen egoera zein den ere. Esaterako, sarritan eskoletan ez dira laburpenak lantzen tresnarik ez dagoelako. Usu izaten den beste arazo bat denbora da, 20 ikasleren laburpenak zuzentzeak eta horiekin lan egiteak denbora luzea eskatzen baitu. Eskolako materialei erreparatuz gero, laburpena bera gutxitan lantzen da, egia da laburpen gaitasuna lantzeko beharrezkoak diren hierarkiak eta erlazioak lantzen direla, esaterako buru mapak erabiliz; baina ariketa horiekin ez dira idatzizko gaitasunak lantzen. Azken batean, horrek guztiak dakarrena da gramatika, progresio tematikoa, konexioa, kohesioa eta koherentzia bezalako baliabideak modu eskasagoan lantzea.

Aipatutako beharrian horiek asebetetzeko, baliabide didaktikoak eta laburpenak kudeatzeko tresna berriak sortu behar dira, laburtze gaitasuna ahalik eta ondoen garatu ahal izateko. Kasu honetan laburtze gaitasuna eta berarekin bat idatzeko kompetentziak garatzen laguntzen duten baliabide edo tresnez ari bagara ere, nabarmendu nahi dugu baliabide eta tresna horiek disziplinarrekotasunean oinarritutako hezkuntzan aplikatzeko modukoak izatea hobesten dugula.

Horiek horrela, lan honen helburua da irakasleentzat baliagarri izango den laburpenak jasotzeko eta aztertzeko Compress-Eus sistema aurkeztea.¹¹ Tresna honek bi laburpen mota jasotzea ahalbidetzen digu, estrakziozkoak eta abstrakziozkoak. Estrakziozkoetan testuko esaldiak ezabatzen dira, baina ez da inolako aldaketarik egiten

⁹ Diziplina barneko/arteko oinarrizko kompetentziak hauek dira: 1) Hizkuntza-eta literatura-komunikaziorako kompetentzia. 2) Matematikarako kompetentzia. 3) Zientziarako kompetentzia. 4) Teknologiarako kompetentzia. 5) Kompetentzia sozial eta zibikoa. 6) Artearen kompetentzia. 7) kompetentzia motorra.

¹⁰ Kompetentzia horrek honako osagai hauek ditu:

- a) Hainbat esparrutako hitzezko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak, analogikoak zein digitalak, ulertzea eta jarrera kritikoz balioestea, xede edo helburu pertsonalak, sozialak edo akademikoak erdiesteko.
- b) Esparru pertsonal, sozial edo akademikoen berezko hitzezko, idatzizko eta ikusentzunezko testuak sortzea, eraginkortasunez erantzuteko askotariko komunikazio-beharrizanei.
- c) Hizkuntzen erabilera-arauei eta hizkuntzen sistemari buruzko jakintza erabiltzea hitzezko eta idatzizko testuak sortu eta ulertzean, komunikazio egoki eta eraginkorrak egiteko.
- d) Literatura-testuak interpretatzea eta balioestea, testuen esanahia modu partekatuan eraikita; eta, horren bidez, mundua ulertzea, literatura-ondarea banako eta taldeko esperientzia sinbolizatze modu gisa balioestea, norberaren kultura-nortasuna eraikitzea eta sentsibilitate estetikoak garatzea.
- e) Gure gizartearen hizkuntza- eta kultura-aniztasuna aitortzea eta balioestea, aniztasun horrekiko jarrera ona izateko.

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/O_H_curriculum_osa.pdf -tik berreskuratua.

¹¹ COMPRES-EUS tresna CLARIN-ERIC europar azpiegituraren barruko K-zentru batean, IXA-CLARIN K-zentruan garatu da (Bel et al., 2016). IXA-CLARIN K-zentruak hizkuntzaren prozesamenduko tresnak erabilerrazak izateko helburua du, ikerketarako eta hezkuntzarako. Tresna hori hemen proba daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/tresnak/compress-eus>.

testu horietan. Abstrakziozkoetan, ostera, laburpena ematen saiatzen gara, jatorrizko testua oinarri izanda, baina, testuko esaldiek ez dute zertan bere horretan agertu, kasu honetan testua berregin egiten da.

1. Marko teorikoa

1.1. Testuen laburpena

Laburtzea idatzitakoa ulertzeko teknika da eta laburpeneko informazioak adieraziko digu testua zenbateko neurrian ulertu den (Sanz, 2005). Sanzen (2005) arabera, laburpena egitea ulertzea baino konplexuagoa da. Ulertutako testuaren barne-irudikapena (proposizioen erlazio-egitura) egiteaz gain, irakurleak erabaki beharko du zein diren barne-irudikapen horretako osagai garrantzitsu eta nagusiak (gaiaren eta azpigiaren arteko koherentzia-erlazioak). Beraz, laburtzeak bi osagai ditu bere baitan, testua ulertzea eta ideiak hierarkizatzea.

Ulermenari dagokionez, irakurleak alde zuzenetik duen informazioa eta testuak dakarrena uztartu behar dira. Horako prozesu horrek jakintza garatzea dakar, baina baita hizkuntza-gaitasuna bera ere. Hori horrela izanda, kontuan hartu beharrekoa da esanahia ez dagoela soilik testuan, baizik eta irakurleak eraikitzen duela bere ezagutzak eskemak aktibatuz eta horrek, testuaren beheranzko prozesaketaz baliatuz, edukiei buruzko iragarpen kognitiboak egitea ahalbidetzen baitio. Horretaz gain, irakurleak testuak dioena aztertzen du, bere iragarpen kognitiboak baieztatuz edo berrikusiz, horri testuaren goranzko prozesaketa esaten zaio. Testua irakurri ahala informazioak bere eskemekin bat egiten badu, hasieran zituen iragarpenak baieztatuko ditu, informazioa ulertuz eta bere eskemetan barneratuz, edo informazioa guztiz bat ez badator, norbere eskemak aldatu eta aberastuko dira. Hala ere, gerta liteke iragarpenok ez betetzea eta orduko eskemekin ezin konparatzea, kasu horretan ezin izango du bere informazioa egoki kodifikatu eta horrek bi ondorio ekar litzake; testua ez ulertzea edo informazioa distortsionatzea.

2.2 Laburpen automatikoa

Testuen laburpen automatikoan egindako ikerketetan, besteak beste, eta gure lanarekin lotuta, bi alderdi bereizteko joera ageri zaigu. Batetik, estrakzio bidezko laburpenak eta, bestetik, abstrakzio bidezkoak. Estrakziozko laburpena egitean testuak ez du inolako aldaketarik izaten, hots, testuko zati garrantzitsuenak hartzeraz mugatzen gara. Adibidez, testu bat irakurri ostean zatirik garrantzitsuenak azpimarratzea. Ostera, abstrakziozko laburpenetan testua berregin egiten da, testuaren egitura eta erabilitako hitzak aldatuz. Laburpen automatikoan abstrakziozko testuekin aritzea oso zaila da; izan ere, ideia garrantzitsu berberak modu ezberdinean idatzita baitaude (Molina et al., 2011) eta zaila da mota horretako laburpen baten kalitatea ondo neurtzea. Horregatik, ez da harrizkoa estrakziozko laburpenen arloan gehiago aurreratu izana egundaino.

Gure lanaren oinarri garrantzitsuenetako bat Molinak (2013) eginiko lana da. Haren esanetan laburpen automatikoen sorkuntza erronka handia dakarren gaia da, eta bi familia metodologiko sortu ditu, aipaturiko estrakzioa eta abstrakzioa, hain zuzen ere. Esaldien konpresioak bi familien arteko zubia eraikitzen du Molinaren hitzetan. Bere lanean esaldien konpresioari buruzko ikerketa aurkezten du eta laburpenean aplikagarria den eredu lineal bat proposatu, esaldi-arteak segmentuak ezabatzea aurreikusten duena.

Eredu honek urre-patroizko testuetatik zuzenean erauzten ditu ezaugarriak eta diskurtso-segmentuak mantentzeko edo ezabatzeko urre-patroiko corpuseko erabakiekin dago entrenatua testuinguru guztia eta sortutako testua kontuan hartuz. Analisi estatistikoa baliatuz zein segmentu ezabatu aurreikusten duten ezaugarri esanguratsuenak ateratzen dira. Horren ostean, eredurik onena erabiltzen da esaldiak konprimatzeko.

3. Erlazionaturiko lanak

COMPRESS-EUS sistema egiterakoan Molinak (2013) eginiko lana oinarri izan dugun arren, gure helburuetara iristeko moldaketa batzuk egin dizkiogu. Molinak (2013) dokumentuen laburpen automatikoak lortzea du helburu, horretarako perpausen konpresioan oinarritzen da eta estrakzio teknikak erabiltzen ditu. Guk ostera, abstrakziozko laburpenak ere biltzeko sistema eratu dugu, estrakziozko laburpen batean egon daitezkeen akats gramatikal eta progresio tematiko desegokiak zuzentzeko. Horretaz gain, esana dugun moduan, biltzen ditugun laburpenak erlaziozko diskurtso-egituran (Iruskieta 2014) aztertu nahi ditugunez, diskurtso-unitateak eta testuko ideia nagusiak zehaztu ditugu gure sisteman.¹²

DBH 4ko ikasleen laburpenak deskribatu ahal izateko, COMPRESS-EUS tresna erabili du Garinek (2017). Programa horri esker estrakziozko eta abstrakziozko laburpenak bildu ditu. Deskribapena egiteko, bi testuak (estrakziozkoa eta abstrakziozkoa) hartu eta alderatu ditu, testu batetik besterako garapena kontuan hartuta. Ikerketan COMPRESS-EUS tresnari buruzko zenbait ondorio interesgarri atera ditu. Abstrakziozko laburpenak egiteko tresna erabilgarria dela badio ere, ikasleak tankera honetako tresnak erabiltzera ez daudela ohituak nabarmendu du. Ohitura falta hori estrakziozko laburpenetan nabari da gehien Garinen esanetan, diskurtso-unitate gutxi ezabatzeko joera baitute ikasleek. Estrakziozko laburpenak egiteko gaitasuna gehiago garatu beharko litzatekela azpimarratzen du.

4. Compress-eus sistema

Lehendabizi, COMPRESS-EUS sistemaren ezaugarri nagusiak emango ditugu aditzera eta, ondotik, tresnaren erabilera azalduko dugu.

4.1. Ezaugarriak

Irakasleen eta ikasleen laburpenak biltzeko tresna da COMPRESS-EUS sistema. COMPRESS-EUS sisteman bi testu mota sartuko ditugu, ikasleen eta irakasleen laburpenak bildu ahal izateko, kasu honetan estrakziozkoak eta abstrakziozkoak: i) Alde batetik, jatorrizko testu laua, hots, laburtu beharko den testua. ii) Bestetik, RSTko¹³ erlazio-egituraz etiketatua¹⁴ dagoen testua, teoria horretan adituak diren irakasleek eginikoa. Erlazio-egitura horrekin zehazten baitu COMPRESS-EUS sistemak ideiarik garrantzitsuena (unitate zentrala).

¹² Etorkizunean koherentzia erlazioak ere implementatu nahi dizkiogu sistemari.

¹³ *Rhetorical Structure Theory* (RST) Mannek eta Thompsonek (1987) proposatu zuen koherentzia hizkuntzalaritza konputazionalan koherentzia deskribatzeko.

¹⁴ Adituen laburpenak dira Compress-Eus sisteman urre-patroizko (Gold Standard) corpusa. Hau da, corpus zuzena, ontzat hartuko duguna eta ikasleen laburpenak zuzentzeko erabiliko dugun corpusa.

Jarraian, aipatu berri ditugun bi testu motak eta unitate zentralaren (UZ) adibide bana azalduko ditugu.

Jatorrizko testua da laburtuko den testua. Aipatzekoa da edozein testu sar daitekeela COMPRESS-EUS sisteman, horrek ikasleen beharrianen arabera testu ezberdinak laburtzeko aukera ematen digu. Jatorrizko testua oinarrizko diskurtso-unitateetan (EDU) banatzen da. Sistemari esker, laburtu nahi den testuko diskurtso-unitate guztiak jatorrizko testuaren parrafoen arabera sailkatzen dira. Ondorengo taulan jatorrizko testu baten adibidea ageri da, “Erbia” izeneko testua.¹⁵

1.paragrafoa

[ERBIA]

2.paragrafoa

[Erbiaren lagunik ez dugu ezagutzen animalien munduan.] [Arerio franko ditu, ordea,] [horiek guztiak haragijale: erbinude txikia edo erdi barazkijalea den azkonar alferra, kasu.]

3.paragrafoa

[Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzeko eta ihesari emateko gaitasunak ontzen.] [Arriskupean dagoen erbi batek ez du lerro zuzenean jotzen, beste animaliek egiten duten bezala,] [sigi-sagan baizik, eta jauzi xebreak ematen ditu,] [horrela etsaiari nahasmendua eragiten dio.] [Zoriak laguntzen badio eta gordelekura iristea lortzen badu,] [zuzenean barrura sartu beharrean,] [harrapatzailea desorientatzeko asmoz,] [aztarnak nahasten ditu.]

4.paragrafoa

[Erne eta arretaz ibilita ere,] [makina bat erbi harrapatzen dituzte.] [Naturak horrela aurreikusita,] [eta espeziaren iraungipena zailtzeko,] [oso ugalkorra egin zuen animalia hau.] [Hamabost hilabeteko eme batek urtean lau umaldi izan ditzake,] [guztira 9 ume erdituz.] [Eman dezagun 9 horietatik 4 emeak direla,] [eta ugalketa bide horretatik jarraituz gero,] [9 urtean erbi batek 65.501 ume izan ditzake.]

Taula 1. *Erbia* testua paragrafoetan bereizita eta diskurtso-unitateetan banatuta

4.1.1. Unitate zentrala (UZ)

COMPRESS-EUS sistemak testuko unitate zentrala, hau da, unitaterik garrantzitsuena zein den zehaztuta izango du. Automatikoki jakin ahal izateko ea erabiltzaileak eginiko laburpenetan testuko unitaterik garrantzitsuena dagoen. Ondorengo taulan “Erbia” testuko unitate zentrala ageri da.

¹⁵ Testu hau Sanzek (2005) irakurmena lantzeko jarduerak prestatzeko proposatzen du, Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako eta Bigarren Hezkuntzako 1. ziklorako. Atutxak eta Iruskietak (2017) Lehen Hezkuntzako ikasleen laburtze gaitasuna aztertzeko, lehendabizi ikasleekin jarduera batzuk egin zituzten eta hauek ere jarduera horietarako testu bera erabili zuten. “Erbia” testua 1 Taulan ageri da paragrafoetan bereizita eta diskurtso-unitateetan banatuta (parentesien bidez).

[Arerio franko ditu, ordea,]

Taula 2. Erbia testuaren unitate zentrala (UZ)

4.2 Erabilera

Jarraian COMPRESS-EUS sistemaren erabilera azalduko dugu. Gure asmoa ikasleen eta irakasleen laburpenak biltzea da; hala ere, webgunera sartzeko aukera duen edozein pertsonak erabil dezake tresna hau. Webgunera heltzeko honako helbidera jo behar du erabiltzaileak: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/tresnak/compress-eus>. Hurrengo urratsa erregistratzea izango da, horretarako 1 Irudian ageri den lekuan klik egin beharko du erabiltzaileak eta ondoren 2 Irudian ageri diren datuak bete.

Irudia 1 Saioa hasteko gunea

Irudia 2 Erabiltzailea erregistratzeko gunea

4.2.1 Gida azkarra

Eskatzen zaizkion datuak sartu ostean, erabiltzaileak bere erabiltzaile izena eta pasahitza izango ditu eta horri esker saioa hasteko moduan izango da. Saioa hasten duenean gida azkarra aurkituko du erabiltzaileak, bertan sistemarekin aritzeko behar dituen jarraibide eta arau guztiak ditu. Jarraibide horiei jarraituz egingo ditu bi laburpen motak, lehendabizi estrakziozkoa eta ondoren abstrakziozkoa.

Prozesuko edozein unetan, testua berriz egiten hasteko, klikatu TESTUA BERRASI botoian.

TESTU KONPRIMATUA lortzeko, segmentuak aldeaz aurretik mugatu dira eta ezin dira moldatu.

Segmentuaren ertz borobilduak soilik adierazten du beronen amaiera, ertza zuzena bada, segmentuak hurrengo lerroan jarraituko du.

Gutxienez segmentu bat mantendu edo kendu beharko duzu testu bakoitzean, hurrengo testua egin ahal izateko.

Garrantzitsua soilik mantendu behar duzu.

Konprimatutako esaldi bat letra xehe batekin has daiteke, gero testua editatu eta horrelako zein bestelako akatsak konpondu ahalko dituzu.

Konprimitutako esaldi baten amaiera puntua ez den beste ikurren bat izan daiteke. Ahalik eta gehien konprimatu behar da.

Segmentuen gainean klik eginez gaitzen edo ezabatzen dira segmentuak.

TESTU KONPRIMATUA bukatuta, LABURPENA IKUSI ETA EDITATU botoian klikatu eta LABURPENA ESKUZ ZUZENTZEKO atala gaituko duzu

Nahi duzun laburpena osatzeko, edozelako zuzenketak egin ditzakezu, baita testu osoa moldatu ere

TESTUA BUKATU botoia sakatu ostean, ezin daiteke testu bera berriz egin eta hurrengo testua agertuko zaizu.

Testu guztiak amaitzean, amaiera-mezua agertuko zaizu.

Taula 3. COMPRESS-EUS erabiltzeko gida azkarra

4.2.2 Estrakziozko laburpena

Behin gida azkarra irakurrita, laburpenak egiteari ekin diezaioke erabiltzaileak; esan bezala, estrakziozko laburpena eginez hasiko da. Estrakzio lanaren nondik norakoak argiago ikusteko, honako irudi honetan erabiltzaileek ordenagailuaren pantailan aurkituko dutena ikusten dugu:

Irudia 3 Estrakziozko laburpena egiteko beharrezkoak diren jatorrizko testua eta testu konprimitua

3 Irudian ikus daitekeen moduan, erabiltzaileak bi testu ikusiko ditu. Ezkerreko testua laburtu beharreko testua da. Testu hori diskurtso-unitateetan ageri da segmentatuta (EDUetan) eta guk hango unitaterik garrantzitsuenak aukeratu ditugu estrakziozko laburpena egiteko.¹⁶ Horretarako, erabiltzaileak beharrezkoak ez diren segmentuak ezabatu beharko ditu, segmentuon gainean klik eginez. Eskuineko testuan, testu konprimatuan, erabiltzaileak klikatutako segmentuak ezabatu egingo dira, estrakziozko laburpena eratuz.

Gerta liteke ezabatu dugun unitate bat berreskuratu nahi izatea, laburtu beharreko testuan bere gainean klik eginda berreskuratuko genuke. Laburpena behin eginda, bi aukera ditugu, bukatu dugula esatea sistemari “Laburpena ikusi eta editatu” jartzen duen lekuan klik eginez edo baliteke gustura geratu ez izana egindakoarekin eta berriro hasi nahi izatea, kasu horretan “Berrasi” jartzen duen lekuan egingo dugu klik (baina orduan egin den guztia galduko da, sistemak ez baitu informazio hori gordeko).

4.2.3 Abstrakziozko laburpena

“Laburpena ikusi eta editatu” klikatuta estrakziozko laburpenarekin bukatuko dugu eta abstrakziozkoa egiteari ekin. Abstrakziozko laburpena testu konprimatuaren azpian ageri den leihotxoan egingo dugu “Laburpenak eskuz zuzentzeko” jartzen duen tokian. 4 Irudian ageri den moduan, leiho horretan aurretik egindako estrakziozko

¹⁶ Akats gehiago sortzen badute ere, automatikoki egin daitezke bi ataza hauek, diskurtso-unitateetan testua zatitu eta ideia nagusien detektatu, honako bi tresnekin: i) EusEduSeg tresnarekin testuak zatitu. Hemen proba daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/EusEduSeg/EusEduSeg.pl> (Iruskieta eta Zapirain 2015). ii) Ideia nagusien detektatzailearekin idaeia garrantzitsuenak detektatu. Laburpen zientifikoetan ideia nagusia detektatzen duen tresna hemen proba daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/CU-detector/> (Bengoetxea et al. 2017).

laburpena dago eta han guk geuk egin nahi ditugun aldaketak egin diezazkiokegu testuari. Horri esker, estrakziozko laburpenak izan ditzakeen akats gramatikalak edo progresio tematiko desegokiak zuzentzeko aukera izango du erabiltzaileak, baita bere hitzez baliatzekoa ere.

Berregin duen testuarekin konforme gaudenean, “Testua bukatu” jartzen duen lekuan klik egin eta sistemak erabiltzaileak egin duena gordeko du.

Tresna hau ikasleek eta irakasleek erabil dezakete eta batzuek eta besteek egin dituzten laburpen guztiak jaso. Oro har, honako dokumentu hauek jasoko ditu: i) estrakziozko laburpenak, ii) abstrakziozko laburpenak eta iii) erabiltzaile guztien eragiketa nagusiak jasotzen dituen kalkulu-orria.

Irudia 4 COMPRESS-EUS sistema abstrakziozko laburpena egiterakoan

4.3. COMPRESS-EUS tresnarekin datu multzo handiak kudeatzen

Erabiltzaile-multzo handi baten emaitzak automatikoki aztertzeko aukera eskaintzen du COMPRESS-EUS tresnak; izan ere, eragiketa nagusiak kalkulu-orri batean eskaintzen ditu. Tresnak ematen duen informazioaren laburpena egingo dugu 4 Taula.

Testu originala						Egile11k kendutako informazioa					
Dokumentua	Paragr.	Esaldia	EDU	Hitzak	UZ	Egile11	UZ	Paragr.	Esal.	EDU	Hitz kop
1	1	1	1	14	1	11	0				
		2	2	8							
		3	9								
	2	3	4	12	2	3	4	9	12		

Taula 2. Adituek eginiko Erbia testuaren estrakzio laburpena

Taula horretan testu originalaren zenbait datu daude: dokumentu horrek 2 paragrafo ditu. Lehenengo paragrafoak 2 esaldi ditu eta testuko bigarren esaldiak 2 EDU ditu. Eskuman Egile11k kendutako informazioa deskribatzen da. Taulan dagoenaren arabera, egile horrek UZa mantendu du eta ez du kendu (bere balioa 0 baita), bigarren paragrafoan hirugarren eta laugarren EDUak kendu ditu. Estrakziozko laburpena denez, EDUak dituen beste hitz kendu ditu (hitz kop.), guztira: 21 hitz gutxiago.

Modu horretan erabiltzaile-multzo handi batean ideiarik garrantzitsuenak (UZa) zenbatak kendu duten jakin dezakegu, baita zein paragrafo, esaldi edo EDU kendu duten, edo zenbat hitz kendu duten.

Horrez gain, erabiltzaileek egiten duten laburpena adituen laburpenarekin alderatzen da, hots, erabiltzaileak egindako laburpenaren eta adituaren arteko berdintasun eta desberdintasunak aztertzen dira, adituarena zuzentzat edo ontzat hartuz. Jarraian, aditu batek eginiko estrakziozko laburpena ageri da 5 Taulan, jatorrizko testuko diskurtso-unitate garrantzitsuenak aukeratuta dago eginda.

1.paragrafoa
2.paragrafoa
[Arerio franko ditu, ordea,]
3.paragrafoa
[Jazarpen horren ondorioz, erbiak ikasi du dena mesfidantzaz ikusten, zuhur-zuhur jokatzeko eta ihesari emateko gaitasunak ontzen.]
4.paragrafoa
[makina bat erbi harrapatzen dituzte.] [oso ugalkorra egin zuen animalia hau.]

Taula 3. Adituek eginiko Erbia testuaren estrakzio laburpena

Arerio asko ditu Erbiak. Hori dela eta, animalia mesfidatia da, zuhurtziaz jokatzeko duena eta, ihes egiteko ahalmen handiduna. Erbi asko harrapatzen dituztenez, naturak oso ugalkorak egin ditu.

Taula 4. Adituek eginiko Erbia testuaren abstrakzio laburpena

Abstrakziozko laburpena egitean (6 Taula), estrakziozkoan egon daitezkeen akatsak zuzendu ditugu. Kasu honetan, testuaren hasieran “Erbia” hitza jarri dugu, estrakziozko laburpenean ez baitago jakiterik zeri egiten dion erreferentzia. Egin den beste aldaketa bat “ordea” lokailua kentzea izan da, ez baita zuzena hurrengo esaldiarekin lotzeko. Azkeneko esaldian ere erreferentzia arazo bat dugu, estrakziozkoan ez dakigu nork edo zerk egin duen ugalkor erbia, honako honetan “naturak” egin duela zehaztu behar izan da. Azkenik, lexikoan dagoen aldea hartuko dugu kontutan; izan ere, laburpena egin duenak bere hitzekin berregin baitu laburpena.

5. Ondorioak

Lan honetan COMPRESS-EUS izeneko sistema aurkeztu dugu.¹⁷ Tresna honek ikasleek eta irakasleek eginiko laburpenak biltzeko eta erabiltzaile-taldearen laburpenak aztertzeko balio du; gainera, bi motatako laburpenak bildu ahal izango ditugu, alde batetik estrakziozko laburpenak, kasu honetan testuak ez du inolako aldaketarik, eta beste aldetik abstrakzioak, azken laburpen hauetan testua berreginda dago.

Testuak bildu ostean, gure nahia da laburpen horiek aztertu ahal izatea, zehazki esanda, diskurtso-egituran oinarritutako azterketa da bihar-etzi egin nahi duguna. Hori horrela izaki, gure tresnak ezaugarri jakin batzuk ditu, guk egin nahi dugun azterketa mota egitea erraztuko dizkigunak. Diskurtso-egituran oinarritutako azterketa errazteko, COMPRESS-EUS sistemak automatikoki adieraziko digu erabiltzaileentzat zeintzuk diren testu zati garrantzitsuenak. Horretaz gain, unitate nagusia erabiltzailearen laburpenean dagoen esango digu, hau ere automatikoki. Eta, bukatzeko, estrakziozko eta abstrakziozko laburpenen arteko alderaketa egiteko aukera ere ematen digu, oraingoz eskuz bada ere.

COMPRESS-EUS sistema eskolako ikasleen laburpenak aztertzeko baliabidea da, hots, gure asmoa da jakitea ikasle eta irakasleek zer-nola laburtzen duten eta tresna honek bide horretan lagunduko digu. Etorkizunari begira, gure asmoa laburtze gaitasuna garatzea ahalbidetuko duten baliabide didaktikoak sortzea da eta horiek garatzeko eta ebaluatzeko egokia da COMPRESS-EUS sistema, gure ustez. Sistemari aukera gehiago inplementatu nahi dizkiogu, esaterako erabiltzaileari *feedback* automatikoa ematea egindako laburpenaren arabera. *Feedbacka* ezberdina izan daiteke, gomendio hutsetatik hasita, laburpena garatzeko ariketak proposatzeraino. Ikasle zein irakasleei emango diegun *feedbacka* zeinahi izanda ere, diziplinartekotasunean oinarrituta egitea da gure asmoa; izan ere, uste dugu gaur egungo hezkuntzaren ardatzetako batek diziplinartekotasuna behar duela izan. Horregatik, ez da gure nahia laburtze gaitasuna modu isolatuan lantzea, baizik eta curriculumeko beste gaitasun edo edukiekin batera, denen arteko oreka eta kalitatea bermatuz.

6. Bibliografia

- Atutxa, U., & Iruskieta, M. *Abstrakziozko laburpen-testuak ebaluatzeko metodoa. Lehen Hezkuntzan: testu-luzera, koherentzia-erlazioak, gai nagusia. Tantak*, 29(1), 53-80 or.
- Bel, N., González-Blanco, E., & Iruskieta, M. (2016). CLARIN Centro-K-español. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 57, 151-154.
- Bengoetxea, K. Atutxa, A., & Iruskieta, M. (2017). Un detector de la unidad central basado en técnicas de aprendizaje automático en textos científicos para el euskera. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 58, 37-44
- Iruskieta, M. (2014). *Pragmatika erlaziozko diskurtso-egitura: deskribapena eta bere ebaluazioa hizkuntzalaritza konputazionallean*. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Iruskieta, M., & Zapiroain, B. (2015). Euseduseg: A dependency-based edu segmentation for basque. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 55, 41-48.

¹⁷ COMPRESS-EUS sistema hemen probatu daiteke: <http://ixa2.si.ehu.es/clarink/tresnak/compress-eus>.

- Mann, W.C., & Thompson, S. A. 1987. Rhetorical Structure Theory: A theory of text organization. *Text*, 8(3), 243-281.
- Molina, A., da Cunha, I., Torres-Moreno, J. M., & Velazquez-Morales, P. (2011). La comprensión de frases: un recurso para la optimización de resumen automático de documentos. *Linguamática*, 2(3), 13-27.
- Molina, A. (2013). Compresión automática de frases: un estudio hacia la generación de resúmenes en español. *Inteligencia Artificial*, 16(51), 41-62.
- Sanz, A. 2005. *Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu: Lehen Hezkuntzako 3. zikloa eta DBHko 1. zikloa*. Nafarroako Gobernua
- Garin, I. (2017). *DBH 4ko ikasleen testu laburpenak deskribatzen, IKTak erabiliz. UPV/EHU-UEU HEZikt Berezko Tituluko proiektua*. Eibar.